

EHUNEKOAK

NOLA IDATZI

NOLA JOKATU?

Sinboloak letra edo ikur ez alfabetikoak dira, eta, batez ere, testu zientifiko-teknikoetan erabiltzen diren terminoak aurkezteko balio dute. Gehienetan, sinboloak nazioarteko instituzioek araututa egoten dira, eta derrigorrean erabili behar dira sortu ziren esparru zehatzetan; testu orokorretan, ordea, malgutasunez jokatu dezakegu.

Aurkezpen honetan, ehunekoak nola idatzi azalduko dugu, zalantza iturri izaten baita sarri.


EHUNEKOAK DIGITUZ IDAZTEN DITUGU

Zuriune bat utziko dugu % ikurraren eta zenbakiaren artean:

% 5

* %5

Zuriunea handiegia izan ez dadin, eta ikurra eta zenbakia beti elkarrekin ager daitezen (lerroz aldatzean ere bai), “zuriune zatiezina” txerta dezakegu:



Ehunekoak osatzen dituzten elementuak (letrak zein zenbakiak) lerro berean agertzea gomendatzen da.

*Herritar gehienek uste dute errepidea berritu beharko litzatekeela, baina soilik herritarren % 20 dago tunela egitearen alde. (*Ikasleen % / 20 - ikasleen % 20)

*Herritar gehienek uste dute errepidea berritu beharko litzatekeela, baina herritarren ehuneko hogeia soilik dago tunela egitearen alde. (*ehuneko / hogeia - ehuneko hogeia)

Oro har, mugagabeak deklinatzen dira, inoiz ez pluralean. Mugatu singularra erabiliko da salbuespen kasuetan: aurretik aipatutako kopuruaren osagarri denean.

Herritarren % 80k uste dute kiroldegi berria egin beharko litzatekeela. Gainerako % 20ak, berriz, uste du berriztatzea nahikoa dela.

Aurreko adibidean ikusten dugunez, deklinabide marka digituz emandako zenbakiari erantsi behar diogu, marratxorik eta hutsarterik gabe.

% 80k
% 20ak

KOMUNZTADURA

Pluralean zein singularrean komunztatuta ikus dezakegu.

Erreferentea plurala denean, pluralean komunztatzea erabaki zuten IZOn 2015ean, eta iritzi berekoa da Asier Larrinaga Larrazabal (EITB) albistegietan datuak ematerakoan nola jokatu behar den azaltzen duenean (*Ikasbil*-HABE). Mendebaldeko hiztunentzat naturalagoa dela dio, eta erabilera zabalagoa dauka.

Langileen % 20k aukeratu dute ordutegi jarraitua.

% 60k greba egin dute, eta gainerakoak lanera joan dira.

Aldiz, *Ortotipografia* liburuaren arabera —Ikasmaterialen Aholku Batzordeak argitaratua eta Euskaltzaindiaren oniritzia duena—, ehunekoek singularrean egiten dute aditzaren komunztadura. Eta testuinguru berezietarako uzten du pluralean komunztatzea. Hona hemen ematen dituen adibideak:

Ikasleen % 78k garaiz egin ditu lanak.

Bezeroen % 57,32 pozik dago.

Sagarren % 31 kanpotik ekartzen dute.

Gaixoen % 7ri gertatu zaio.



Testuinguru berezietako adibideak, honako hauek:

Zuetariko % 87k ondo gainditu du/duzue azterketa.

Zein bere hizkuntzan mintzatu zen/ziren hizlarien % 20.

EHUNEKOEN LEKUAN

Zenbait kasutan, ehunekoetan eman beharrean, proportzioak emateko modu argiagoak ere erabil daitezke:

Emakumeen % 50 bat datoz hartutako erabakiarekin.

Emakumeen erdiak bat datoz hartutako erabakiarekin.

Bi emakumetik bat ados dago hartutako erabakiarekin.



EHUNEKOAK IDAZTEN DITUGUNEAN...

***BESTELAKO
ZALANTZA
BATZUK ERE IZAN OHI
DITUGU.***

Nola idatzi ehuneko negatiboak?

Minus zeinua (-) eta % unitate-sinboloa elkarren alboan idatzi behar dira, hutsarterik gabe.

-% 3 [minus ehuneko hiru]; beraz, ezin dugu honela erabili: % -3

% 3 hazi da eta % 3 igo da ala % 3an hazi da eta % 3an igo da?

Euskaraz, gauza bat zenbat hazi den galdetzen dugu; ez zenbatean hazi den. Beraz:

Langabezia-tasa % 3 hazi da.

*Langabezia-tasa % 3an hazi da.

Prezioak % 1,6 igo dira.

* Prezioak % 1,6an igo dira.

Ehunekoa dagokion hitzaren ondoren idatzi behar da % sinboloa.

Botoen % 24 bereganatu du alderdi horrek.

* % 24 boto bereganatu du alderdi horrek.

Digitu, sinbolo eta hitzen konbinazioei buruz, Euskaltzaindiak ez du araurik eman, baina gaztelaniarako Real Academia Españolak (RAE) ematen duen aholkuari jarraiki, honako hau proposatzen dugu:

“Ehuneko” esapidea hitzez zein zifraz lagunduta ager daiteke:

Ehuneko 20 // Ehuneko hoge

Alabaina, % sinboloa zenbakiekin soilik erabiliko dugu:

Inkesta erantzun dutenen % 20k ...

* Inkesta erantzun dutenen % hogeik ...

Gomendagarriena zera da: ehunekoak osorik letraz idaztea (ehuneko hogeik) edo ikurrez lagundutako digituekin (% 20k), nahasketarik egin gabe.

% sinboloa *ehuneko* irakurtzen da; ez *ehunetik*, ezta *ehunetarik* ere.

Prezioak % 1,6 igo dira. [Prezioak *ehuneko* bat koma sei igo dira./

**Prezioak ehunetik bat koma sei igo dira./ *Prezioak ehunetarik bat koma sei igo dira.]*

Digituz ematen ditugunean, ez da zuzena "*ehunetarik*" eta "*ehunetik*" irakurtzea, baina zuzenak lirateke letraz letra idatziz gero. Honela:

Ehunetik hogeita lau boto bereganatu ditu alderdi horrek.

Ehunetarik hogeita lau boto bereganatu ditu alderdi horrek.

INFORMAZIO ITURRIAK

INFORMAZIO ITURRIAK

- *Ortotipografia, Ikasmaterialen Aholku Batzordea*
- *Itzulpen- eta berrikusketa-irizpideak, (IZO , 2016)*
- *Ehunekoak nola erabili, Asier Larrinaga (Ikasbil-HABE)*